




Moneta: Monetaren Etxeak eta ondoren Korreosek egindako "ereilea"ren hautaketak, Victor Hugok aukeratutako irudi sinbolikoaren ugalkortasuna adierazten du. Europar moneta berrian ere irudi hau azaltzen da (10, 2 eta 50 zentimoko txanponetan). Frantzian, alegoria ongileen feminitatea konstante bat da Marianne-n aurpegi idealizatuan identifikatzen diren erregimenetan.

1860. urteko apirilean, 12 urte lehenago "iraultza zela eta" alde batera utzi zuen "Urrikalgarriak" lanari berriz ekiten dionean, Victor Hugo bizargabea da oraindik. Barrikadaren atala gehitzen duenean ordea, itxuraz aldatzen du erabat. 1861eko urtarrilaren 16an horrela idatzi zuen: "bizarra hazten utziko dut, ea horrela eztarriko minengandik babesten nauen".

1863



1863 Victor Hugo, T.B. Huttonek egina. MVH © PMVP.

"Ilunabarreko une hori da.
Atarian jarria, miraz nago
Egun hondarrari, lanaren
Azkena argitzen duelarik.

Gauak urpetutako alorretan
Hunkiturik ikusten ditut
Agure baten pildak,
biharko uzta ildoetan jaurtika.

Bere soslai beltz tentea dute
goldatu sakonek tenteagotzen.
Atzematen dut sinesten duela
egunen joate emankorrean.

Zabaldegi mugagabea dabil
Harat-honat, hazia urrun jaurti,
Eskua berriz zabaldu, eta berriro
ekin,
Eta ni, lekuko ilun, neure baitan.

Hegalak zabaldurik, itzalak,
zurrumuru batekin nahaste,
Izarretaraino luzatzen duela dirudi
ereilearen aieru sakratua."

Ilunabarreko une hori da...

«Ereilearen keinu agurgarria»ren moduan, Millet eta Van Gogh-en margolanek unibertso desagertu baten irudia azaltzen dute. Mekanizazioak gizonen lanaren irudiak ezabatu ditu, zinezkoagoa eta lasaiagoa; ilunabarrean, haizea gelditzen denean. Haziak bedeinkatutako lurrenak dira, eguneroko ogiaren zikloa: Poemaren indarrak bere xalotasunean datza.

«Ereinaroa, ilunabarra», Karriketako eta basoetako kantuak, II, 1, 3, [1865 irailak 23].